

Suziriak jaurtiz ospatu
zuten beren futbol-
taldearen garaipena.

Bi dira, hiztegien arabera,
ospatu aditzaren adierak.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



- Gertaera edo egun jakin bat jai edo ekitaldi bereziren batez gogoratu; gertaera jakin bat dela eta, jai edo ekitaldi bereziren bat egin.

[Sarasola, I. (2008). Euskal Hiztegia. Elkar, Donostia].



Adibidez: Adibidez:

- Urtero ospatzen dute garaipena; jatetxe batera joaten dira bazkaltzera.
- Krisialdia dela eta, aurten ez dut ospatuko nire urtebetetzea.
- Musulmanak dira, eta ez dute ospatzen Aste Santua.
- Konpartseroen eguna ospatu zuten larunbatean.
- Herri guztietan ez dituzte berdin ospatzen Eguberriak.
- Aldizkariaren 25. urteurrena ospatu zuten jai-giroan.
- Gure herrian ere ospatzen dute Santa Ageda bezpera.
- Urre-ezteiak ospatu dituzte haren gurasoek.
- 2009an ere ospatuko dugu Euskararen eguna.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Erabilera okerra:
Erabilera okerra:

Ospatu aditzaren bidez zer bait
egin edo *gertatu* dela adieraztea.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Adibidez: Adibidez:

- *Bilera bat ospatu dugu.
 - Bilera bat egin/izan dugu.
- *Lasterketa bat ospatu dute.
 - Lasterketa bat egin dute.
- *Zezenketa bat ospatu da jaietan.
 - Zezenketa bat egin/izan da jaietan.
- *Meza ospatuko du apaizak.
 - Meza emango du apaizak.
- *Duela hiru aste, hauteskundeak ospatu ziren.
 - Duela hiru aste, hauteskundeak izan ziren.
- *Gorpurik gabe ospatu zuten hileta.
 - Gorpurik gabe egin zuten hileta.



- *Gure adiskide batek ospatu zuen ezkontza.
 - Gure adiskide batek ezkondu zituen.
- *Aurten, Bartzelonan ospatuko da Komiki Azoka.
 - Aurten, Bartzelonan izango da Komiki Azoka.
- *Nazioarteko mus-txapelketa bat ospatuko da Bilbon.
 - Nazioarteko mus-txapelketa egingo/jokatuko da Bilbon.
- * Etxebizitza duinaren aldeko manifestazioa ospatu genuen Donostian.
 - Etxebizitza duinaren aldeko manifestazioa egin genuen...
- *Bilboko Auzitegi Nagusian ospatu da epaiketa.
 - Bilboko Auzitegi Nagusian egin da epaiketa.
- *Final-laurdenetarako zozketa ospatu zen atzo.
 - Final-laurdenetarako zozketa egin zen atzo.



Norbaiti edo zerbaiti ospe eman; ohoratu.

- ✓ Ospatzen zaitugu, Jauna, ospatzen. Zure izena dugu zabaltzen. Ospatzen.



Ospatu aditzaren bigarren adiera
Ospatu aditzaren bigarren adiera

 Norbaiti edo zerbaiti ospe eman;
ohoratu.

Oharra:

Adiera horretan, Iparraldean erabiltzen da batez ere.

Ospatzen zarraga, zarraga, ospatzen. Zarraga
dugu zabaltzen. Ospatzen.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Gure lankide eta adiskide Iñaki Ugartebururi

Ene laguna, etorri zaizu
alde egiteko garaia,
bihotz-bihotzez desiatzeizut
guztiz biaje alaia;
inoiz edo behin izanez gero
gurera itzuli nahia
artizarraren begi-keinuaz
bidali mezu arraia.



UPV/EHUko Euskara Zerbitzuko kideak



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

